

EDIKTUA

2015EKO EKITALDIKO KONTUEN HASIERAKO ONESPENA: UDALA ETA MUSIKA ESKOLA

Etxarri Aranatzeko udaleko Kontu Batzorde Bereziak 2016ko azaroaren 25ean erabaki du:

1.-Adostasun txostena ematea Udalaren 2015eko ekitaldiko kontuei, baita Musika Eskolako urte bereko kontuei ere.

2.-Horiek guztiak jendaurrean egonen dira udal idazkaritzan, hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 273. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatuari jarraituz, bidezkoztat jotzen diren erreklamazio, kexa eta oharrak egin daitezten.

Etxarri Aranatzeko 2016ko azaroaren 25ean
Alkatea: Eneka Maiz Ulaiar

